

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5162

24/2025 DEKRETUA, azaroaren 27koa, lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko kideak aldatzeko dena.

Lan Harremanen Kontseiluari buruzko otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 5. artikulua ezarritakoaren arabera, lehendakariaren eskumena da sindikatuen erakunde eta konfederazioek eta enpresen konfederazioek kontseiluan dituzten kideak izendatzea, erakunde horiek beren ordezkariak aukeratu ondoren; bestalde, lege horren 6. artikulua arabera, kontseiluko kideen agintaldia bi urterako izango da, baina, hala ere, berriro ere aukeratu ahal izango dira.

Agintaldia bi urtekoa izan arren, otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 6.2 artikulua sindikatuen erakunde eta konfederazioei eta enpresen konfederazioei aukera ematen die kide titularrak edo ordezeko kideak aukeratu dituzten pertsonak aldatzeko.

Aipatutako lege-gaikuntzarekin bat etorriz, Euskadiko Enpresaburuen Konfederazioak (Confebask) lehendakariaren azaroaren 18ko 22/2025 Dekretuaren bidez izendatutako pertsona bat aldatu du, eta aukeraketa berria egitea erabaki du.

Horren ondorioz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Charo Bazán Rincón andrea Lan Harremanen Kontseiluko kide ordezkia izendatzea, Euskadiko Enpresaburuen Konfederazioak (Confebask) aukeratu ondoren, Gonzalo Pérez Gonzalo jaunaren ordezkia.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko azaroaren 27an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.